



HIZKERA EZ SEXISTA EUSKARAZ. EUSKARAK EZ DU GENERORIK! BAINA...

1. GIZONAK alde guztietan...

EZ ERABILI*	ERABILI
Legegizon Itsasgizon Enpresagizon	Legelari Itsas-langile/marinela Enpresari/Enpresaburu

* Gizona zehazki ez bada

2. Generoa DUTEN hitzak...

EZ ERABILI	ERABILI
Zenbat seme dituzu? Senar-emazteek eskatu ahalko dute Umeen aiten baimena behar da.	Zenbat seme-alaba dituzu? Ezkontideek eskatu ahalko dute Umeen gurasoen baimena behar da

3. Genero asimetriak

EZ ERABILI	ERABILI
Gidoia Jeremie Elkaim-ek eta bere emazteak idatzi dute	Gidoia Jeremie Elkaim-ek eta Valerie Donzellik idatzi dute

4. Ez da behar orokortzerik, ez pertsonarik...

EZ ERABILI	ERABILI
Pertsona interesdunak jakinarazpen bat jasoko du Erizaintzako Unibersitate Eskolako irakasleriak greba egingo du datorren astean	Interesdunak jakinarazpen bat jasoko du Erizaintzako Unibersitate Eskolako irakasleek greba egingo dute datorren astean